

TXALUPAN

IKASLEEN HIZKUNTZA-INTEGRAZIOA INDARTZEKO PROGRAMA

2026-27 IKASTURTERAKO DEIALDIA

AURREKARIAK

Herriko eskoletan ugaritu egin dira, azken urteotan, euskararen bidez integratzeko zailtasunak dituzten ikasleak: kanpotik etorri berri direlako, etxean eta kalean oso inguru erdalduna dutelako... Horien hizkuntza-integrazioa errazteko, errefortzu-eskolak antolatu izan ditu Orioko Udalak urteetan; udan bakarrik, hasieran, eta ikasturtean zehar ere bai, gero. Nolanahi ere, denborak aurrera egin ahala, Udalak ikusi du errefortzu-eskolek ez diotela erantzun bete-betea ematen gaur egungo erronkei, eta planteamendu osoago baten beharra dagoela, herriko ikasleen premiei behar bezala erantzuteko.

Alde horretatik, programa honen abiapuntua hizkuntza-errefortzua ahalbidetzea baldin bazen ere, egun, Txalupan programak helburu du herriko haur eta gazteak euskaraz bizitzeko eta Orioko ehun sozial eta komunitarioan parte-hartzeko aukera, -eskolaz haragoko jardueretan lagunduz-, ahalbidetzea, ahalik eta haur eta gazte gehienei. Testuinguru horretan sortu zuen Udalak **TXALUPAN** programa.

Planteamendu osoago horrek barne hartzen ditu, ez bakarrik euskara-eskolak, baizik-eta, baita herriko aisialdi- eta kirol-eskaintza eta bestelako eskolaz kanpoko jarduerak ere. Herrian antolatzen diren jarduera horiek ez dira iristen ikasle batzuegana, gurasoek horien berri ez daukatelako, edo beren seme-alabentzako modukoak ez direla uste dutelako, edo, besterik gabe, ordaindu ezin dituztelako... Eta, horrela, herriko haurren arteko arrakala sortzen da eskolaz kanpoko jardueretan. Arazo horri ere erantzun nahi dio Udalak **TXALUPAN** programaren bidez.

1.- PROGRAMAREN HELBURUA

TXALUPAN programaren helburu nagusiak dira Orioko ikasleen hizkuntza-integrazioa zein gizarte-integrazioa indartzea, herrian eskura dauden baliabideen erabilera optimizatuz.

2.- ONURADUNAK

Programaren onuradunak hizkuntza eta gizarte integrazioarako zailtasunak dituzten, eta Orion errolda duten ikasleak izango dira: HHtik hasi eta DBH4ra bitartekoak.

Ikasle horiei aukera eskainiko zaie herriko eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko 2026-27 ikasturtean eta 2027ko udan (ikasle bat, jarduera bat, ikasturtean zehar; eta beste horrenbeste, udan). Udalak ordainduko ditu jarduera horien kostuak.

3.- DOTAZIOA ETA AURREKONTUKO PARTIDA

Udalak diru-partida bat du 2026ko aurrekontuan, Gizarte Zerbitzuen eta Hezkuntza atalean, TXALUPAN programaren gastuak finantzatzeko:

0600.226.06.326.50 Txalupan programa – Hezkuntza Saileko aurrekontua: 15.000€

0803.226.06.231.60 Txalupan programa – Gizarte Zerbitzuetako Saileko aurrekontua: 15.000€

4.- ESKAERAK AURKEZTEA

Ikastetxeek Udalak sortuko duen izen-emate dokumentu baten bidez egingo dituzte 2026-27 ikasturteko TXALUPAN programan parte hartzeko eskaerak.

Eskaerak aurkezteko epea 2026ko maiatzaren 11an irekiko da eta maiatzaren 22n itxiko da.

5.- AURKEZTUTAKO ESKAEREN BAREMAZIOA

Udalak lan-mahai tekniko bat sortuko du ekainaren hasieran, aurkeztutako eskaerak aztertzeko eta horien baremazioa egiteko. Lan-mahai hori honela osatuko da: bi ikastetxeetako zuzendariak, gizarte-zerbitzuetako bi langile eta Udaleko berdintasun eta hezkuntza-teknikaria.

Lan-mahaiak barematuko ditu aurkeztutako eskaerak, behar beste bilera eginez, eta puntuazioaren araberrako ordenan ezarriko ditu. Lan-mahaiak, bestalde, aurreko urteko txalupakideen asistentzia-datuak kontuan hartuko ditu zerrenda osatzerakoan.

Lan-mahaiak kontu berezia izango du:

- Familia bereko haurren puntuazioa zaintzeko, ez dadin gertatu, irizpide desberdinekin baloratzeagatik, batzuk barruan geratzea eta beste batzuk kanpoan.
- Gizarte Zerbitzuen erabiltzaile zuzenak diren familietako haurrak TXALUPAN programatik kanpo ez geratzeko. Horretarako, Gizarte Zerbitzuek aukera izango dute beren erabiltzaile batzuk TXALUPAN programan zuzenean sartzeko.

Baremazioa egiteko irizpideak hauek izango dira:

1. IRIZPIDEA: Hizkuntza lantzeko premia	Ulertu eta hitz egiten du, baina landu beharra dauka	Ulertzen du, baina kosta egiten zaio hitz egitea	Ulertzen hasi da, baina oraindik ez du hitz egiten	Ezer ez daki euskaraz edo hitz solteak bakarrik
	PUNTU 1	2 PUNTU	4 PUNTU	5 PUNTU
2. IRIZPIDEA: Sozializatzeko premia	Badu laguntaldea, baina ondo etorriko zaio eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzea	Badu laguntaldea, baina ez du ia eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzen	Lagun gutxi ditu eta ez du parte hartzen eskolaz kanpoko jardueretan	Ez du laguntalderik eta ez dauka ia erlaziorik besteekin
	PUNTU 1	2 PUNTU	4 PUNTU	5 PUNTU
3. IRIZPIDEA: Gaitasun ekonomikoa	Ez du inolako dirulaguntzarik jasotzen	Ikastetxeak emandako laguntzak jasotzen ditu	Eusko Jaurlaritzaren beka jasotzen du	Gizarte Zerbitzuen arloko dirulaguntzak jasotzen ditu
	PUNTU 1	3 PUNTU	5 PUNTU	8 PUNTU
GUZTIRA				

Oharra:

- **3.IRIZPIDEAN: Gaitasun Ekonomikoa.** Gizarte Zerbitzuen arloko dirulaguntzak jasotzen dituztela ziurtatzeko, dokumentuak Gizarte Zerbitzuetan aurkeztu beharko dituzte, bestela ez dira kontutan hartuko.

6.- BATERAGARRITASUNA

TXALUPAN programan parte hartzea bateragarria izango da eskatzaileak jaso ditzakeen bestelako dirulaguntzekin.

7.- EBAZPENA

Behin eskaerak jasotzeko epea pasatuta eta lan-mahai teknikoak egindako proposamena aintzat hartuta, Udalak 15 egun izango ditu eskaera guztiak aztertu eta barematzeko eta txalupakideen 2026-27 ikasturteko zerrenda ebazteko.

Txalupakideen zerrenda bi irizpide hauen arabera erabakiko da:

- Baremazioan eskaera bakoitzak lortu duen puntuazioa.
- Udal-aurrekontuan jasotako diru-kopurua.

Ikasturtean zehar inkorporatu daitezkeen ikasle berrien eskaerak, banan-banan aztertu eta baloratuko dira eta salbuespenez onartuak izan daitezke jardueretan parte hartzeko aukera emateko.

Ebatzitako txalupakideen zerrenda hori bera erabiliko da 2027ko udako jardueretan parte hartzeko ere. 2027ko udako eskaintzan parte-hartzeko plaza batzuk eskainiko dira HH2 maila egingo duten haurrentzat (ikasturteko eskaintzarik ez baitago), deialdi hau egiteko garaian. HH2ko zein haur izango diren txalupakideak 2027ko martxoa-apirila bitartean erabakiko du jarraipen-batzordeak.

Urteko txalupakideen zerrenda **ekainaren 8rako** ebatziko da eta, astebeteko epean, deialdian parte hartu duten eskaeragile guztiei jakinarazpen bana bidaliko die Udalak, jakinaren gainean egoteko, adieraziz txalupakide izango diren ala ez. Ondoren, txalupakide bakoitzak zer jarduera egingo duen erabakitzeko epea ekainaren bukaera artekoa izango da.

Segidan, Gizarte Zerbitzuek herriko kultur eta kirol-taldeei bidaliko diete bakoitzari dagokion txalupakideen zerrenda. Aldaketaren bat baldin badago (adibidez, jarduera horretan dagoeneko plazarik ez dagoelako), Gizarte Zerbitzuek kudeatuko dute hori eta, gero, ikastetxeek jakinaraziko diete familiei.

Behin zerrendak finkatuta (txalupakide bakoitza zein jarduera egingo duen zehaztuta) kultur eta kirol-talde bakoitza jarriko da harremanetan ikasleekin, jarduera noiz hasten den esateko eta zehaztasunak emateko, **I. eranskin**eko prozedurak zehazten duen moduan.

8.- JARRAIPEN-BATZORDEA

TXALUPAN programaren jarraipena egiteko batzorde bat osatuko da, honela osatuta: bi ikastetxeetako ordezkari bana, gizarte-zerbitzuetako langile bat, Udaleko hezkuntza eta berdintasun teknikaria, kirol-teknikaria eta Udalaren ordezkari politiko bat.

Jarraipen-batzordearen zereginak hauek izango dira:

- Txalupan programaren jarraipen orokorra egitea.
- Ikasturtean zehar etortzen diren ikasleak sartzea programan.
- Kontrolatzea txalupakideen asistentzia jardueretan (kultur eta kirol-elkarteei bete behar dituzten jarraipen-fitxak aztertuta).
- Asistentzia-tasa minimoa ezartzea eta betetzen ez dutenen penalizazioak erabakitzea. II. eranskineko irizpideen arabera.

9.- BALDINTZAK BETETZEKO KONPROMISOA

TXALUPAN programako parte-hartzaile guztiek, parte hartzeko eskaera bidaltzearekin batera, konpromiso sendoa hartzen dute zorrotz betetzeko jardueratan ezarritako arauak eta, bereziki, egutegi eta ordutegiak.

Ikasturtean zehar baldintza horiek betetzen ez dituztenek lehentasuna galduko dute txalupakideen zerrendan hurrengo ikasturtean.

Orio, 2025eko maiatza

1. Eranskina: Jardueren prozedura

SARRERA

Txalupa-kideek aukeratutako eta onartutako jarduerak nola kudeatu zehazten du prozedura honek.

IZEN-EMATEA

Behin txalupa-kideen zerrendak onartuta, gizarte zerbitzuko langileak dagokion elkarteari berari egokitutako haurren zerrenda bidaliko dio.

Haur batek lekurik edukiko ez badu aukeratutako jardueran, elkarteak ahalik eta azkarren jakinaraziko dio gizarte zerbitzuko langileari, haur horri beste jarduera bat esleitzeko.

Dagokion elkarte jarriko da harremanetan familiarekin izen-ematea nola egin behar duen jakiteko.

Txalupa-kideen kuota Udalak elkarteekin duen hitzarmenen bidez ordainduko da

JAKINARAZPENA

Elkartearen eginkizuna izango da txalupa-kideen familiei ekintzaren ordutegi eta egutegia helaraztea.

JARRAIPEN SISTEMA

Elkarte bakoitzak, Udalarekin kontaktua izango duen pertsona bat izendatu beharko du komunikazioa errazago izan dadin.

Jarduerak hasten diren lehen astean, elkarteak haur horien asistentzia kontrolatu beharko du.

Haur hori lehen egunetan ez bada agertzen, ikastetxeei abisatu beharko dio, honek gaia kudeatu dezan. Beharrezkoa izango balitz, ikastetxeak gizarte zerbitzuekin jarriko dira harremanetan.

Urteko jarraipena egiteko, hiru hilero, haur horien asistentziaren jarraipena egiteko, gizarte zerbitzuko langilearekin elkarbanatuta egongo den fitxa bat bete beharko du elkarte bakoitzak. Horrez gain, elkarteak ez-ohiko jarreraren bat ikusten badu, hau ere jakinaraziko dio gizarte zerbitzuko langileari.

1. Familiekin harremanetan jartzerako unean ordutegi eta egutegiak jakinarazteko, lortu badute, ez badute lortu edo zailtasunen bat badago, horretara zuzendutako dokumentuan jasoko dute eta ikastetxeek izango dute ardura elkartearen ondoren familiei komunikatzeko. Bestela, azken saiakera moduan Gizarte Zerbitzuak hartuko dute ardura.

2. Jarduerari hasiera eman eta bi astetara, elkarteek, berriz ere, dokumentua beteko dute. Jarduerara maiztasun egokiarekin joaten diren, aldizka edo joaten ez diren zehaztuz.

3. Ikasturtean zehar beste hirutan bete beharko dute elkarteek jarraipen dokumentua. Gizarte Zerbitzuek adieraziko dituzte datak (azaroa, otsaila eta apirila inguruan) eta bertan, jarduerara maiztasun egokiarekin joaten diren, aldizka edo joaten ez diren zehaztuko dute.

** Egindako jarraipenetan maiztasun gutxirekin joan diren edo joan ez diren ikasleen inguruko informaziorik eskuratzen ez badute elkarteek, ikastetxeek izango dute ardura elkartearen ondoren familiarekin harremanetan jarri eta arazoa non dagoen identifikatzeko. Bestela, azken saiakera moduan Gizarte Zerbitzuak hartuko dute ardura**

2. Eranskina: Asistentzia tasa minimoa eta penalizazioak

Prozeduran zehazten den moduan, elkartean erantzukizuna izango da txalupa kideen asistentziaren jarraipena egitea eta ikastetxe eta gizarte zerbitzuekin partekatzea.

Asistentziari dagokionean, jarraian gerta daitezken egoeren aurrean hartu beharreko irizpideak zehazten dira.

- **Harremanetan jartzerako unean**, familiak, arrazoi ezberdinengatik uko egitea txalupakide izateari. Uko egitea idatziz jaso beharko dute eta gizarte zerbitzuetan aurkeztu. Kasu horietan, ikasleak, hurrengo ikasturtean txalupa kide izateko aukera/eskubidea galduko du. Salbuespena: osasun fisiko edo emozionalagatik baja justifikatua.
- **Lehenengo asteetan** jarduerara joaten ez diren txalupa kideekin, jarraipenak egin ondoren, elkarteek eta ondoren, beharrezkoa balitz, ikastetxeek kontaktatu ondoren jarraitzea aukeratuko balute, hurrengo jarraipenera arte (azaroa) itzarongo da asistentzia baloratzeko.
- **Urtean zehar egindako beste jarraipenetan:**
 - Ikusiko balitz jarduerara ez dela joaten, txalupa kide izateari utziko lioke eta hurrengo ikasturtean txalupa kide izateko aukera/eskubidea galduko luke.
 - Asistentzia aldizkakoa bada:
 - Hiruhileko saio guztien erdia edo gutxiago, txalupa kide izateari utziko lioke eta hurrengo ikasturtean txalupa kide izateko aukera/eskubidea galduko luke. Salbuespena: osasun fisiko edo emozionalagatik baja justifikatua.
 - Hiruhileko saio guztien erdia baino gehiagoko asistentzia izango balu, txalupa kide izaten jarraituko luke, baina ondorengo jarraipenean egoera aldatuko ez balitz, ikastetxeek izango dute ardura familiekin harremanetan jarri eta arazoa non dagoen identifikatzeko. Ikastetxeek, gizarte zerbitzuekin batera baloratuko dute txalupa kidearen jarraipenaren egokitasuna.
 - Txalupa kide izaten jarraitzeko erabakia hartzen bada, hurrengo jarraipenak aldizkakoak izaten jarraitzen badute, automatikoki baja emango zaio Txalupa programatik.